

2014-15 denboraldia



Ikasturtean zehar eskola-kirolean ibili diren gaztetxoak.

Eskola-kirola

2014-2015 denboraldia ere joan da eskola kirolean. 1. mailakoak gazteenak eta 2000. urtean jaiotakoak zaharrenak, 60 bat gaztetxo aritu dira astearte eta larunbatetan hainbat taldetan beren buruari kirola eginaraziz, talde giroa indartuz eta izerdi puska bat atereaz. Entrenatzaile eta arduradun Iker Saizar, Mikel Matxinea eta Lierni Gartziarena izan dituzte.

1. eta 2. mailakoekin kirol ezberdinak ezagutaraztea eta talde lana zer den erakustea izaten da helburua, eta nola ez, kirola eginez ondo pasatzea. 3. mailatik kadete mailara bitartekoekin, berriz, 5 talde osatu ahal izan dira aur-ten.

Benjaminetan, 3. eta 4. mailakoek aldaketak izan dituzte norgehiagoketan, emaitzarik gabeko lehiaketak lehenetsi baitituzte Tolosaldean, umeek izaten zituzten partida ondorenen ondorioz,

bai saskibaloian, bai eskubaloian, bai areto-futboleant. Kirola berdin-berdin eginez, giro lasaiagoan aritu dira gaztetxoak eskualdeko beste herrietakoen aurka. Maila honetan, mutilen bi talde aritu dira lehian.

Alebinetan, berriz, 5. eta 6. mailakoen artean, bi talde izan dira: bat, neskena; eta, bestea, mutilena. Saskibaloia eta areto-futbola landu dituzte.

Neskekin hasita, taldeko gehienak 5. mailakoak izanik, helduxeagoen aurka lehiatu behar izan dute gehienetan, eta emaitzak ez dira lehengo urtean bezain onak izan. Hala ere, asko ikasteko balio izan die bizi izandakoak.

Mutilen taldeak, berriz, zorte txarreko urtea izan du aurtengoa. Saskibaloian partida bakarra galdu arren, Gipuzkoako txapelketatik at geratu ziren; eta areto-futboleant ere, bi talde baka-rrik sailkatzen zirenez, 3. eginda pena

handiz amaitu zuten denboraldia.

Azkenik, kadeteen mailan, nesken taldea aritu da. Bitxia izan da hauena: urtean zehar jokatu behar izan dituzten 18 norgehiagokak irabazita iritsi ziren Ordiziara, Gipuzkoako txapelketako finala jokatzera; han, partida ia irabazita zutenean, azken unean aurkariak partida berdintzea lortu eta gero, penaltietan galdu zuten, eta idiazabaldarrek eraman zuten garaikurra etxera.

Bestalde, Eguberrietako eta San Joanetako txapelketetan ere hartu zuten parte berastegiarek. Hiru talde lehiatu ziren, eta hirurak lehen fasean kaleratuak izan ziren bi txapelketetan.

Esku-pilota

Pilotako denboraldia ere amaitu dute dagoeneko. Salontzoetako torneoa bakarrik geratzen zaie pilotari gazte-

txoei jokatzeko. Ander Gartziarena eta Xabier Gartziarena ibili dira entrena-tzaile lanetan, 30 ume ingururi ostegun arratsaldeetan esku-pilota irakasten.

Tolosaldeko txapelketetan hiru talde aritu dira lehian: bat, benjamin mailan; eta, beste biak, alebin mailan. Benjamin mailakoei ondo etorri zaie urtea partidetakoa nerbioak kontrolatzen ikasteko. Alebinen bi taldeek, berriaz, oso maila ona eman dute ligaxkan, nork bere multzoan lehen postuan amaitu du. Gero Gipuzkoako Txapelketan talde bakarra sartzen zenez, Arkaitz Gartziarena, Asier Gartziarena eta Arkaitz Garmendiak osatutako taldea izan zen sartu zena, eta lehengo urtean bezala garaipena Berastegira ekarri ahal izan zuten. Gipuzkoako txapeldun! Bejondeiela.


Eskia

Martxoaren 7an jokatu ziren Euskadiko eta Nafarroako Iraupen Eskiko txapelketak Belaguako gainetan, eta Tolosako Alpino Uzturre taldearen izenean lehiatu ziren plazastarrak, Berastegiko eskiazaile ezagunenak. Maila ona erakutsi zuten eta emaitza onak lortu ere bai. Olaia Plazas txapeldun izan zen infantil mailan bi modalitateetan, skating-ean eta klasikoan; eta Mikel Plazasek kadele mailan 3. postua lortu zuen bai skating-ean, bai klasikoan. Euskadiko eta Nafarroako lanak amaituta, Espainiakoetara.

San Jose egunaren inguruko asteburu luzean jokatu ziren Espainiako



Arkaitz Gartziarena, Asier Gartziarena eta Arkaitz Garmendia, Gipuzkoako eskolarreko pilota-txapelketako irabazleak.



Olaia Plazas podiumaren gailurrean, pozik garaikurra eskuan duela.



Txiki Plazas, Imanol Rojo eta Maialen Lopezekin batera, urrezko dominak irabazita Espainiako txapelketan errelebo proban.

ILEAPAINDEGIA

MIKAELA OLANO

Zubiondo etxea

Telefona: 657 566 651

Manikura

Depilazioa

Estensioak

ESTETIKA





Mikel Matxinea, bizikleta gainean. Eskubian, Alain Saizar, Gatzagako lasterketan bizikleta gainean.

Iraupen Eskiko txapelketak Aragoiko Linzako maldetan, eta Euskal Federazioaren izenean lehiatu ziren plazastarrak. Tolosako Imanol Rojok, Irungo Maialen Lopezek eta Berastegiko Txiki Plazasek osatutako hirukoak urrezko domina eskuratu zuen errelebo-proban; Plazasek berak klasikoko proban ere urrezko domina lortu zuen beterranoen mailan, eta skating modalitateko lasterketan zilarrezkoa. Bestalde, Mikel Plazasek brontzezko domina lortu zuen kadete mailako errelebo-proban, 4. egin zuen skating modalitatean eta 8. klasikoan; Olaia Plazasek, berriz, 4. egin zuen bi modalitateetan.

Futbola

Iñaki Urkizu futbolari berastegierra Irungo Real Union taldean aritu da aurtengo denboraldian 2.B mailan. Titular izan da gehienez, eta ez du lesio larriarik eduki. Liga 4. postuan amaitu zuen taldeak; eta, 2. A mailara igotzeko sailkapen fasean, Murtzia egokitu zitzaion aurkari. Etxean 0-0 egin eta han luzapenean 1-0 galduta, agur esan behar izan zioten igoera faseari.

Hala ere, Federazio Kopa irabazita, titulu baten jabe ere egin dira Real Unioneoak, noiz eta klubak sortu zela 100 urte bete dituen. 2. B eta 3. mailako taldeek hartzen dute parte

Federazio Kopan, eta urte osoan zehar jokatzeko partidak. Finala, esan bezala, han 0-1 eta etxean 3-0 eginda, irabazi egin zuen Real Unionek Castellonen aurka. Pozik da Iñaki egindako denboraldiarekin. Beste urtebeterako fitxa du Realarekin, eta datorren urtean ere Real Unionen jokatu du.

Txirrindularitza

Bigarren urtea du aurtengoa Mikel Matxinea berastegiarrak afizionatuen mailan. 20 urte betetzear dela, Ampo Goierriko Txirrindularitza Bultzatuz taldean darrai, 23 urtez azpikoen kategorian. Pasa dena urte gogorra izan

Herriko etorkizuna indartzen

BEASTI

GE

GURASO ELKARTEA

JuanJo Harategia

943 65 11 94 · 606 56 17 88

duela adierazi digu Mikelek, entrenamenduen eta lasterketen gogortasunera eta zailtasun teknikoetara ohitu behar izan duelako; baina ikasteko eta ofizioa ezagutzeko asko balio izan diola ere aitortu digu.

Aurten, esperientzia handiagoarekin, gusturago dabil bizikleta gainean, pelotoiko lanari erritmoa hartuz. Bi bizkaitar fitxatu ditu taldeak lidertzarako, eta haiei laguntzea eta haientzat lan egitea dute Mikelek eta gainerako taldekideek egiteko. Planteamendu berriak emaitzak ere ekarri dizkio taldeari, Ataungo Euskadiko Txapelketa eta Lleidako Itzuliko 4 etapetatik 3 Ampo Goierri taldeak irabazi baititu. Estatu osotik barrena dabil Mikel taldearekin lasterka, eta denboraldi batean dira orain. Abuztuan egun bateko lasterketak izango dituzte, batez ere. Irailean, berriz, bi itzuli garrantzitsu: Kantabriakoa eta Valentziakoa.

Alain Saizar berastegierra, berriz, taldez aldatuta, Eibarko Debarrena taldean dabil aurten. Aurrekontu txikia du taldeak, eta Euskal Herriko lasterketetan soilik hartzen du parte, afizionatuen mailan. Besteak beste, Nafarroako Itzulian izan da Alain, eta Beasaingo klasikoan ere bai. Orain arteko posturik onena Matxituako lasterketan lortu du, 42. helmugaratuta. Bere kontura, herri-lasterketaren bat ere egin du, tartean Quebrantahuesos ezaguna. 6 ordu eta 13 minutuko denborarekin, orain dela 2 urte baino 2 postu atzerago geratu da, 122. postuan.



Iñaki Urkizu Federazio Kopako finala irabazi berrian, pozik garaikurra eskuetan duela.

Mendi-lasterketak

Asko dira mendi-lasterketetan dabil-tzan berastegiarrak, baina aurtengo denboraldian bi izen nabarmendu dira batez ere besteen artetik: Jon Azpiroz eta Iban Agirrezabala.

Entrenatzailea ez ezik, lasterketei begirako planteamendua ere goitik behera aldatuta ekin zion Jon Azpirozek denboraldiari. Bere burua 45 kilometro baino gehiagoko ultra lasterketak egiteko prestatze aldera, entrenamendu-saioak trinkotzea eta elikadura bereziki zaintzea izan dira aurten bere buruari jarri dizkion exigentziak. Negua entrenatzeko gogorra egin zaiola aitortu digu, egun motzei eguraldi txarra erantsiz gero, ez baita beti erraza



Jon Azpiroz Ultra Mitic Andorra lasterketan korrika.

gertatzen etxetik lasterka egitera ateratzea. Korritzeko garaia heldu zaionean, ordea, eta espero ez bezalako emaitzak lortuta, gustura da Jon bere kirol errendimenduari.

Maiatzean, Baigorri bikoteka egin den 40 kilometroko bi etapako lasterketan, 2. egin zuen Ibarako Luis Lasa korrikalaria lagun zuela. Maiatzaren 30ean Leitzako Euskal Herria Mendi Erronkan ere hartu zuen parte, baina utzi egin behar izan zuen lasterketa, babekin izan zituen arazoak tarteko. Ekainaren 7an, Huescako Sierra de Guara mendi-maratoia irabazi egin zuen, 1. postuan helmugaratuta. Andorran San Joanen ondoren izan zen 116 kilometro luzeko lasterketan, berriz,





Iban Agirrezabala Beasaingo helmugan, Goierriko Bi Haundiak bukatu berritan.



Aldin Kirol Elkarteko mendi-korrikalariak Leitzan, taldekako sailkapeneko 3. saria jasotzen.

2. egin zuen, 19 ordu eta 7 minutuko denbora eginda; eta, bukatzeko, uzta-laren 10etik 11rako gauean Goierriko Bi Haundietan 2. helmugaratu zen, lasterketako 88 kilometroak egiteko 10 ordu eta 18 minutu behar izan ondoren.

Aurrera begira, Chamonix-eko 160 kilometroko lasterketa du Jonek begiz jota, abuztuaren bukaeran Alpeetan izango dena eta munduko mendi-lasterkari guztiek egin nahi izaten dutena. Aurreko 2 urteetan hainbat karreratan lortutako puntuazioarekin zozketa batean parte hartzeko aukera izaten dute korrikalariak, eta zozketa horretan zortedun izan direnek soilik izaten dute aukera lasterketan parte hartzeko. Aurten egokitu zaio, eta ez dago aukera alferrik pasatzen uzteko. Ezagutzen ez dituen lasterketek eta ibilbideek, gainera, izugarri motibatzen dutela aitortu digu, aparteko irrika sortzen diotela korrika egiteko.

Iban Agirrezabalak, berriz, duela 3 urte futbola utzi eta urtebete lasai eman ondoren, korrika egiteari heldu zion, asfalto gainean nahiz mendian. Udazken aldera, errepideko hainbat lasterketa egin zituen, baita emaitza txukunak lortu ere: urriaren 26an Hon-

darribiko maratoi erdian 9. sailkatu zen; azaroaren 9an Behobia-Donostia lasterketan oso denbora ona egin zuen, ordubate eta 11 minutukoa, hain zuzen; azaroaren 29an, Berrobiko krosean 3. egin zuen; eta, etxean, Berastegiko urtezaharreko krosa irabaztea lortu zuen, hainbat urtetan nahi eta ezinean ibili eta arantza kenduta.

Urtarriletik aurrera, mendiko lasterketei begira ekin zien prestaketa-lanei: gimnasioan iraupena edo fondoa landuz, eta ahal zuenean mendian lasterka eginez. Martxoaren 14an Larrabetzuko mendi lasterketa egin zuen, apirilaren 19an Berako maratoi erdia, ekainaren 30ean Leitzako Euskal Herria Mendi Erronkan 15. helmugaratu zen (azpimarratzekoa Aldin Kirol Elkarteko mendi-korrikalarien taldeak 3. egin izana taldekako sailkapenean), ekainaren 13an Tolosaldeko Hiru Tontorrak maratoi sortu berrian 9. egin zuen; eta, bukatzeko, Goierriko Bi Haundietan 5. postuan helmugaratu zen, lasterketako 88 kilometroak 10 ordu eta 56 minutuan osatu ondoren.

Abuztuaren 1ean du hurrengo zita Asturiasen: 86 kilometroko Desaffo Somiedo ultratraila. Horren ondoren, atsedeen hartzeko asmoa du Ibanek pixka

batean, udazkenarekin batera berriro ere lasterketa laburrei ekin aurretik.

Arrauna

Fermin Caminos arraunlari berastegierra denboraldi betean da orain. Negu partean utzita izan du arrauna, eta udaberria zenbait mendi-lasterketa egiteko aprobetxatu du: Izarraizko 22 kilometroko mendi-lasterketa Azkoitian, neurri bereko UZ traila Urretxu eta Zumarraga aldean, eta Tolosaldeko Hiru Tontorrak maratokia, nahiz eta azken hau bukatzerik lortu ez. Uda garaia inguratu denean, arraunari heldu dio berri ere, eta Donostiarra B taldean ari da lehian, KAE 2 ligan.

Mañel Salbarredi berastegierra eta Mikel Arizaga elduarra ere arraunean dabilta Tolosaldeko Arraun Klubean, infantilen mailan. Urtarriletik martxora arteko Gipuzkoako Batelen Ligan 2. egin zuten, eta Gipuzkoako Batelen Txapelketan beste horrenbeste, 2. helmugaratu ziren finalean Pasaiko uretan. Apirilean Euskadiko Txapelketan ere 2. onenak izan ziren Legutioko uretan, eta Espainiako Txapelketara sailkatzea lortu zuten. Pontevedrako Meira herriko uretan egin zen finalean, 5. postuan geratu ziren.



Ezkerrean, Fermin Caminos, Donostiarra B taldean arraunean. Goian, Mañel Salbarredi eta Mikel Areizaga, Pasaiko estropadan 2. egin eta gero. Mikeli ziaboga onenaren saria eman zioten.

Bestalde, ekain aldera izaten den Gipuzkoako Udaberriko Batelen Liga irabazi egin du Mañelen eta Mikelen arraun taldeak, Mañel arraunlari eta Mikel patroï direla, eta lorpen horietaz guztiez gain, Bermeoko Arrain Azokako eta Hernaniko San Joanetako banderak ere eskuratu dituzte. Pozik da Mañel egindako lanarekin, datorren denboraldian ere arraunean jarraitzeko asmoz eta gogoz.

Motoziklismoa

Mikel Etxeberria berastegiarrak ere motor gainean segitzen du. Laugarren urtea du federatuta, eta Elgoibarko Urnabitza moto-klubaren babesean, Euskadiko Txapelketak jokatzen ari da. Crosscountry modalitatean 4 lasterketatan hartu du parte 30 urtez azpikoen senior mailan, Langraiz Okan, Miranda de Ebron eta Elgoibarren, eta bosgarren lekuan da sailkapenean. Enduro modalitatean, berriz, 3 lasterketa jokat

ditu senior mailan, Zallan, Elgoibarren eta Munitibarren, eta honetan ere bosgarren postuan dago.

Jokatu dituen lasterketen artean aipagarrienetakoa uztailaren 4an izan

zen Gordexolako lasterketa legoke. 65 kilometroko bi buelta egin behar izan zituzten motorzaleek, eta 6 ordu eta 30 minutuko denborarekin 228 lehiakide-tatik 32. egin zuen Mikelek.



Mikel Etxeberria motor gainean, lehiari bete-betean.

Burdindegia/Ferreteria

HERNANDORENA

Tf/Fax: 948 510055

Mail: f.hernandorena@yahoo.es

c/ Elbarren 21
31880 LEITZA (NAFARROA)

HARATEGIA - TXERRIKITEGIA

LARDI-BI

Jose Luis Barriola Lazkano

Iurre Auzoa, 4
Tolosa
Telf. 943 67 06 70